

Katalunia gertuxeago dago orain

Piskanaka ugaltzen doaz itzulpenak bi norabidetan. Orain **Sarrionandiaren beste liburu bat** ipini dute katalanez: **'Jo no sóc d'aquí'**

Bartzelonako Euskal Etxearen programazioa ikaragarria da: urtean 300 ekitaldi. Eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan 'minor' bat dago euskara eta euskal kultura ikasteko



LAUBIDE

FELIX
IBARGUTXI



Sarrionandiarena aurkezten. Maria Colera, Jon Elordi, Ainara Munt eta Jose Angel Irigaray. :: P. ELZABURU

Argazki hau Bartzelonan egin zen lehenengo igandean. **Joseba Sarrionandiaren 'Ni ez naiz hemengoa'** liburuaren katalanezko bertsioaren aurkezpen-ekitaldia da. Ezkerretik hasita, lehenbiziko laguna eta hirugarrena dira itzulpena egin dutenak, bata **Maria Colera Intxausti**, bestea **Ainara Munt Ojanguren**. Elkarlanean jardun dira. Bigarrena **Jon Elordi** da, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan euskara eta euskal kultura irakasten dituen, eta laugarrena **Jose Angel Irigaray**, Pamiela etxeko editorea.

Pol'en Edicions-ek plaza-ratu du **'Jo no sóc d'aquí'** hau, Pamielarekin elkar hartuta. Iaz ere egin zuten elkarlana, 'Som com moros dins la boira?' liburu tzarra zela-eta. Orduan, Ainara Muntek egin zuen itzulpen-lan guztia.

Oraingo 'Jo no sóc d'aquí' hau askoz txikiagoa da Sarrionandiaren beste lan erraldoi hura baino. Hala ere, ez da lan samurra izan. Maria Coleraren testigantza **Elearazi** atarian **Danele Sarriugarteri**: «'Ni ez naiz hemengoa' itzultzea gure proposamen bat izan zen. Ikusi dugu Sarrionandia itzultzea ez dela lirudikeena bezain erraza, irakurtzen duzu eta ondo egiten duzu aurrera baina oso joskera berezia du, horrekin askotxo sufritu dugu».

Ainara Munt Ojanguren ez da nornahi Katalunian; APTIC-eko (Associació Pro-

fessional de Traductors i Intèrprets de Catalunya) sortzaileetako bat izan zen. Aita katalan baten eta ama euskaldun baten kimua da. Ainarak hobeto ezagutzen du xede-hizkuntza, katalana, eta Maria Colerak hobeto jatorrizkoa, euskara. Halaxe, tandem egin dute.

Jon Elordi ere jarduna da itzulpen-lanetan. **Kirmen Uriberen** 'Bitartean heldu eskutik' itzuli zuen katalanera, eta gero errezitalak eman zituen, batzuetan Kirmenekin batera, bestetan hura gabe. «**Laia Noguera** eta biok Kataluniako hainbat herritan ibili ginen liburua aurkezten, eta hurrera izugarri ona eta atsegina izan zen. Ikusle batzuek negar ere egin zuten, haien txikitako antzeko esperientziak aipatzen zituzten...», ez dut gogoratzen gusturago egin dudana lanik», esan dit.

Elordi 2000. urtean hasi zen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan lanean, eta 2006tik aurrera irakasle laguntzaile bat lortu zuen, **Aritz Galarraga**. Bartzelonako Euskal Etxean ere ematen ditu euskara-eskolak. Eta, etxe hori aipatu dudanez, esan dezadan urtean 300 (!) ekitaldi antolatzen dituela. Zenbat elkarte ditugu hemen horrelako kopurura iristen direnak? Ekitaldi jendetsuenak musikazkoak izan ohi dira (EH Sona jaialdia, baitik bat), eta iaz bereziki indar handia hartu zuen Zinemaldia.cat delakoak.

Itzulpen berriak azkenaldian

Beti esan izan da katalanak eta euskaldunok sinpatia diogula elkarri, baina praktikan beste gauza bat dago nabarmenago: elkarren eza-gutzarik eza. Datu adierazgarria: hogeitaka urtetan zehar, **Literatura Unibertsala** bilduman, literatura katalanetik itzultitako obra bat bakarra egon zen: 'Zenbait poeta katalan'.

Hala ere, azkenaldian pauso interesgarriak eman dira aurrerantz. **Gerardo Markuleta** itzultzaileak apailatu zuen aipatu aspaldiko bilduma hura, eta aurre berri eman du argitarera, era landuago batean, eta izenburu honekin: **'Poeta katalan garaikideak'**. Denak XX. mendeko autoreak dira, eta aukeratutako testuak nahiko laburrak eta argiak, Markuletaren esanetan.

Gure Markuleta asko nabarmendu da azkenaldian. Iaz, **Vicent Andrés Estellés** valentziar poeta euskaratu zuen, bildumari izenburu 'Estellés euskaraz' ipini ziotelarik. Eta beste argitaletxe baterako -Pasazaitte etxerako- ipuin-bilduma bat euskaratu du Gasteizko oñatiarrak: **'Hobe kontatzen ez badidazu'**. **Quim Monzó**, **Inma Monsó**, **Empar Moliner**, **Sergi Pàmies** eta **Francesc Serés**-en hamalau ipuin dakartza bildumak. Kontuan izan behar da ipuinak beti pisu handia eduki duela eta daukala hango literaturan, eta hautatzaileari -Aritz Galarraga- ez zi-

tzaion lan erraza gertatu.

Bestalde, hor dago berriki **Itxaro Bordak** egindako **Maria Mercè Marçal**-en antologiaren itzulpena ere. Eta aipatu beharrekoa da, noski, iaz plazaratutako **Mercè Rodoredaren 'Ispilu hautsia'** ere. 'Idazle nazional' horietako bat izan zen Rodoreda, eta nobela hori burgesiaren erretratu bikaina da.

Helduen alorrean titulu-kopuruak ez dira oso altuak, baina haur- eta gazte-literaturako liburu dezente itzuli dira katalanera. Hauek nabarmendu dira gehien, hurrenez hurren: Mariasun Landa, Bernardo Atxaga, Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide eta Xabier Mendiguren Elizegi.

Minor bat sortu ahal izan dute UABn

Zer jende mota ari da euskara eta euskal kultura ikasten **Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan**? Era askotakoa da: batzuk katalanak, beste batzuk euskal jatorrikoak, baita Eramusekoak ere. Hau kontatu dit **Jon Elordi** irakasleak: «Honen inguruan bi gauza: lehenengo, plan berriekin aukera askeko ikasgai guttiak desegin dituztela eta hautazkoak erabat murriztu, derrigorrezkoei leku handiago emateko, eta horrek euskarako ikasgaiei izugarritzko kaltea ekarri diela; bigarrena, hala ere, euskarako minorra sortu ahal izan dugula (5 ikasgai-ko espezializazioa). fibargutxi@diariovasco.com